



Julio Artetxe Barkin jaunak, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren idazkari nagusi denak,

**EGIAZTATZEN DU:**

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak, 2018ko uztailaren 19an balio osoz egindako bilkuran, honako erabakia hartu zuela:

“ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRARI BURUZKO FISKALIZAZIO TXOSTENA, 2016KOA, BEHIN BETIKO ONARTZEA”

Ondoren Osokoak, **gehiengoz**, honako hau erabaki du:

**Lehenengo:** Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2016koa, behin betiko onartzea.

**Bigarren:** Ondorioak dagozkion aldizkari ofizialetan argitara ematea xedatzea, HKEEren 1/88 Legearen 13.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Eta hala egiaztatzen du Bilkurako lehendakariaren Oerekin, Vitoria–Gasteizen 2018ko uztailaren 19an, adieraziaz Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 19.5 artikuluari jarraikiz, egiaztagiri hau jaulki dugun unean onartzeko dagoela bilkuraren Akta.

O.E.

BILKURAREN LEHENDAKARIAK

Izp.: Jose Luis Bilbao Eguren

